



ORDENANTZA 4. ZK

AGURAINGO UDALA ARABAKO LURRALDEA

**ERAIKUNTZA LANEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN ZERGA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

I. XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua

Udal honek Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, Arabako Lurralde Historikoko Eraikuntza lanen, Instalazioen eta Obren Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorrira, zerga hau ezartzen eta eskatzen da. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantza honen zatia da.

2. artikulua

Ordenantza udalerrri osoan ezarriko da.

II. ZERGA GAIA

3. Artikulua

Zerga honen zerga gaia izango da hirigintza obretarako lizentzia egokia eskatzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, lizentzia lortuta edo lortu gabe, baldin eta lizentzia hori luzatzea udal honi badagokio.

4. Artikulua

Adibide gisa, honako hemen zerga gai den zenbait egitate:

- 1.- Oin berriko mota guztietako eraikuntzak edo instalazioak eraikitzeo obrak.
- 2.- Lehendik dagoen mota guztietako eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Aldatzeko edo zaharberritzeko obrak, baldin eta mota guztietako eraikinen edo instalazioen egiturari eragiten badiote.



- 4.- Mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpo itxura aldarazten dutenak..
- 5.- Eraikinen barne antolamendua aldarazten duten obrak, barne antolamendu horren erabilera edozein izanda ere.
- 6.- Lurzoru eta Hirigintza 2006/2 Legeko 36. eta 37 artikulua aipatzen dituen behin-behineko obrak..
- 7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
- 8.- Lur mugimenduak, adibidez, lur erauzketak, indusketak eta betelanak, salbu eta egintza horiek onetsi edo baimendu den hirigintza edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa xehekaturik eta antolaturik badaude.
- 9.- Eraikuntzen errauspena, salbu eta hurre-hurreko aurri deklaratu izan direnena.
- 10.- Aparkalekurako diren zorupeko instalazioak, industri, merkataritza edo lanbide jarduerak, zerbitzu publikoak edo zorupearen beste edozein helburu.
- 11.- Edozein obra, eraikuntza edo instalazio, baldin eta horiek ahalbide ekonomikoa erakusten duten ekonomi baliabideen inbertsioa sortzen badute eta obretarako edo hirigintzako lizentziari loturik badaude.
- 12.- Bide publikotik ikus daitezkeen propaganda-kartelak jartzea.

5. Artikulua

Hurrengoak ez dira zerga honi loturik egongo: higiezin gainean burutzen diren eraikuntzak, obrak edo instalazioak, baldin eta higiezin horien jabari titulartasuna udal honi badagokio eta obraren jabea bada.

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK



6. Artikulua

1. Honakoek ez dute zerga ordaindu beharrik izango:

- a) Estatua, Autonomia Erkidego, Lurralde Historiko edo Toki Erakundeen jabetzapeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra egin ahal izateko, lanak euren kargu egon eta helburua baldin badute errepide, trenbide, aireportu, obra hidrauliko, herrien saneamendua eta barauen hondakin ur beltzenak, nahiz eta lanen kudeaketa Erakunde Autonomoen bitartez burutu, lan horiek inbertsio edo kontserbazio obrak izanik ere.
- b) Arabako Lurralde Historikoko Kontseiluen jabe diren edozein eraikuntza, instalazio edo obra zerbitzu edo erabilera publikora zuzendutakoa.
- c) Ureztaketa ezartzeko helburua duten eraikuntza, instalazio eta obrak, baldin eta Arabako Foru Aldundiak onartutako Ureztatze Planaren barruan badaude. Horrelakoak ezartzeko helburua duten eraikuntza, instalazio eta obrei zein mantentzeko helburua dutenei dagokie salbuespena.

Edozein obra, eraikuntza edo instalazioa egitea honako leku hauetan:

- 1.- Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikulua 2. paragrafoaren a) idatz zatiaren arabera monumentu izendapena duten higiezinak. Salbuespen hori kultur ondasun kalifikatuei ezarriko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legeak adierazitako baldintzak betetzen badituzte.
- 2.- Salbuetsita egongo dira, era berean, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikulua 2. paragrafoaren b) idatz zatiaren arabera monumentu izendapena duen higiezin multzo batean sartutakoak. Salbuespen hori babes bereziko erregimenaren barruan sartzen diren higiezin kalifikatuei edo inbentariatuei besterik ez zaie aplikatuko, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako baldintzen arabera.

2. Honako hauek daude zerga honetatik salbuetsita:

- a) % 95eko hobaria izango dute interes berezikotzat edo udal erabilerakotzat aitortutako eraikuntza, instalazio edo obrek, aitorten hori justifikatzen duen gorabehera historiko eta artistikoa sustatzekoa egonez gero. Idatz zati honetako hobarien gainerako edukiko nahiz formako alderdiak ordenantza honetan arautuko dira.
- b) % 95eko hobaria izango dute eguzki energiaren autokontsumorako aprobetxamendu termikoa edo elektrikorako sistemak ezartzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obrek. Hobaria aplikatuko da autokontsumorako aprobetxamendu



termiko edo elektrikorako sistemen instalazio edo obraren aurrekontuari bakarrik, instalazio berezi horretaz aparte beste eraikuntza, instalazio edo obraren aurrekontua kontuan hartu gabe. Baldintza bat egongo da hobari hori aplikatzeko, beroa sortzeko instalazioek dagokion Administrazioaren homologazioa duten kolektoreak izatea. Aurreko a) letran aipatutako hobaria aplikatu baldin bada, letra honetako hobaria aurreko hori aplikatuko ondoren aplikatuko da.

c) % 90eko hobaria izango dute ezgaien sarbide eta bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten eraikuntza, instalazio edo lanek. Aurreko a) eta b) letratan aipatutako hobariak aplikatu baldin badira, letra honetako hobaria aurreko horiek aplikatuko ondoren aplikatuko da.

d) %50eko hobaria izango dute herrigune historikoan edo aldiriko auzoetan birgaikuntzarako eraikuntza, instalazio edo lanak; betiere, hotelak, ostatu, agroturismo edo antzekoak eraikitze baldin badira.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

7. Artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadunaren kontzeptuan, Zergen Foru Arau Nagusiako 35. artikuluan 3. idatz zatiak aipatzen dituen pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta erakundeak, eraikuntza, instalazioa edo lanaren jabeak badira, eragiketa gauzatzen den higiezinaren euren jabetzapekoa izan zein ez izan.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoren ondoretarako, eraikuntza, instalazio edo lanaren jabetzat hartuko da eragiketa eta egitateak dituen kostu eta gastuak ordaintzen dituenak.

2. Eraikuntza, instalazio edo lanaren eragiketa subjektu pasibo zergadunak egiten ez duen kasuan, ordeko subjektu pasiboak izango dira dagozkien eraikuntza, instalazio edo lanaren lizentziak eskatzen dituztenak edo eragiketarako burutzen dituztenak.

Ordezkoak eskatu ahal izango dituzte zergadunari berak ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

V. ZERGA OINARRIA

8. Artikulua



1. Zerga honen zerga-oinarria eraikuntza, instalazio edo lanaren benetako eta egiazko kostua da, hau da, ondore hauetarako, lana gauzatu eta burutzerainoko kostu materiala.

Zerga honen zerga oinarrian ez da sartuko Balio Erantsiaren Gaineko Zerga eta erregimen bereziak berez dituzten bestelako antzeko zergak, ezta tasak, prezio publikoak, ezta gainontzekoak ere aipatutako eraikuntza, instalazio edo obrekin zerikusia dutenak herri toki izaerako ondareprestazioekin, ezta profesionalen lanbide-ordainsariak, ezta kontratistaren enpresa-irabazia, ezta benetako exekuzio materialeko kostuaren barruan, zehatz mehatz, sartzen ez den beste edozein kontzeptu ere.

VI. ZERGA KUOTA

8. Artikulua

Zerga honen kuota kalkulatzeko, zerga gaiari eranskinean adierazten den karga tasa ezarriko zaio.

VII. SORTZAPENA

10. Artikulua

Zerga sortuko da eraikuntza, instalazio edo lana hasten den unean, lizentzia egokia lortu ez bada ere.

VIII. KUDEAKETA

11. Artikulua

Manuzko lizentzia ematen denean, behin-behineko likidazio bat egingo da eta zerga egitatea interesatuek aurkezten duten aurrekontuaren arabera zehaztuko da, baldin eta aurrekontu hori elkargo ofizial egokiak ikus-onetsi badu; bestela, zerga gaia udal teknikoek zehaztuko dute proiektua zenbatetsi den kostuaren arabera.

12. Artikulua

Lizentzia eman ondoren, hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da behin-behineko beste likidazio bat egiteko, hasierako aurrekontutik berrira dagoen diferentziaren arabera aldatu den aurrekontuaren eredura.

13. Artikulua

1. Benetan egin diren eraikuntzak, instalazioak edo lanak eta horien benetako kostua ikustean, udal administrazioak, hala denean, administrazio proba egokiaren bidez zerga



egitatea aldaraziko du; horrez gain, behin-betiko likidazio egokia egingo du eta subjektu pasiboari lanari dagokion diru kopurua eskatuko edo itzuliko dio.

2. Aurreko atalean xedatutakoaren ondoretarako, lana amaitu edo horren behin-behineko jasotzea egin eta hurrengo hilabetearen barruan, inguruabar honen aitortpena aurkeztuko da udal administrazioak ematen duen inprimaki batean eta, horrekin batera, lanaren zuzendariaren ziurtagiria ere bai; ziurtagiri hori elkargo ofizial egokiak ikusonetsita egon beharko du, bidezkoa denean, eta obren kostu osoa ziurtatu beharko du, proiektuaren zuzendaritzagatik eskubideak, industria irabazia, eta lanatik sor daitezkeen gainerako kostu guztiak barne.

14. Artikulua

Zergaren likidazioaren ondoretarako, administrazio isiltasuna ezartzeagatik ematen diren lizentziek beren beregi ematen diren lizentzien eragin berdina izango dute.

15. Artikulua

Udalak zerga hau autolikidazio gisa eskatu ahal izango du.

16. Artikulua

Lizentzia baten titularrak baimendutako lanak, eraikuntzak edo instalazioak egiteko orduan atzera egiten badu eta horretarako ukoa idatziz aurkezten badu, udalak egin den behin-behineko likidazioa itzuliko du edo erabat deuseztatuko du.

17. Artikulua

Lizentziaren iraungitze-data pasatu ondoren, udalak praktikatu duen kitapena indargabetu eta hobariaren zenbatekoa bueltatzeko eskatuko du, salbu eta titularrak lizentzia berritzea eskatu eta udalak onartu.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere eranskinarekin batera, behin betiko onartu zen eranskinean agertzen den egunean eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera da indarrean eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.



ERAIKUNTZA LANEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ERANSKINA

1. TARIFAK

- Proiektu tekniko batean oinarrituta egin beharreko lanak:	Aurrekontuaren %4
- Proiektu teknikorik behar ez duten egin beharreko lanak:	Aurrekontuaren %3
- Gutxieneko tarifa:	6,01 €laneko

2.INTERES BEREZIKOTZAT EDO UDAL ERABILERA KOTZAT AITORTUTAKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA LANEK, AITORPEN HORI JUSTIFIKATZEN DUEN GORABEHERA HISTORIKO ETA ARTISTIKOA SUSTATZEKO BADA.

Eraikuntza, instalazio eta obren zergari buruzko uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauaren 4.3.a) artikuluan ematen den ahalmena erabiliz, Aguraingo Udalak hobaria ezartzen du Udalerriko herrigune historikoko etxebizitzak birgaitzeko egiten diren eraikuntza, instalazio eta obrak, horien kontserbazio eta hobekuntza sustatzeko helburuarekin eta honako estipulazio hauei jarraituz:

Xedapen orokorrak

1. Hobariak emateko honako baldintzak hauek hartuko dira kontuan:

- Borondatezkoak eta behin-behinekoak izango dira, eranskin honetan kontrakorik ezartzen ez bada.
- Ezin izango dira aldezipenatarako aurrekari moduan erabili.
- Ezin izango da hobaria gehitzea edo berrikusketa eskatu.

2. Hobari honen aplikazio eremuak Aguraingo udalerriko herrigune historikoko eraikuntzen birgaitze obrak hartuko ditu kontuan, eraikin horien erabilera nagusia eskatzailearen etxebizitza izatea denean, Arabarri programan sartuta dagoenean eta honako baldintza hauek betetzen dituzenean:



- Proposatzen den erabilerarako mugarik ez izatea, ez eta hirigintza antolamendutik kanpoko kalifikazioa edukitzea ere..
- Obrak egiteko arazoia sustatzaileei edo eraikitzaileei leporatzeko moduko akatsak direnean, ez da laguntzarik emango.
- Obrak egin eta gero eraikuntza, eskatzailearen lehenengo etxebizitza eta ohiko bizileku itzatea.
- Obraren aurrekontua 300,50 euro baino gehiagokoa izan behar da.

3. Honako hauek izango dira Eraikin baten egitura-egokitzapena eta etxebizitzaren bizigarritasuna lortzeko egiten diren birgaitze lanak:

- Eraikinaren egitura egokitzea (zimenduak, zutabeak, habeak, estalkiak, fatxadak finkatzea, eskailerak sendotzea, teilaberritzea).
- Fatxadak eta beste elementu komun batzuk zaharberritzea (akaberak, iragazgaiak, pintura, ateburuak, leiho-isurkiak, ataria, eskailerak).
- Instalazioak egokitzea, eraikinen elementu komunak baldin badira, berokuntzakoak izan ezik (konponketak, birjartzea eta lehenengo aldiz jartzea: ur hotza eta beroa), saneamenduak, instalazio elektriko komunak, telebistako instalazioak, eguraste eta aireztatzeko instalazioak).
- Eraikinetako instalazioak eta isolamenduak konpontzea, berritzea eta jartzea.
- Nahitaez egin beharreko obrak, Lurzoruaren Legearen 203. artikuluari jarraituz abiatutako administrazio espedienteek hala egiteko agintzen dutenean.

4. Birgaitze lan babestuak egitean, teknika eta egitura aldetik koherentea izatea eraikinaren egoerarekin eta egin beharreko bestelako lanekin. Eraikin batean egiturazko eta eraikuntzazko segurtasun baldintzarik ez bada, elektrizitaterik eta urik ez badu, ez eta saneamendu orokorreko sarerik ere, obrak ez dira babestuko, obretan horiek guztiak jartzen ez badira.

Eskatzaileak

1. Pertsona fisikoek herrigune historikoko etxebizitzak birgaitzeko Eraikuntza, Instalazio eta Obren zergaren gaineko hobariak eska ditzakete, etxebizitza berena bada, Aguraingo udalerrian badago, haien ohiko bizilekua bada, eta bertan etengabe eta modu iraunkorrean bizi badira eskabidea aurkeztu baino urte bete lehenago.



2. Eskatzaileek ezin izango diete herri administrazioei, erkidegoko administrazioei, gainontzeko antzeko erakundeei eta dagozkien aprobetxamenduak arautzen dituztenei inongo zorrik izan.

Zenbatekoa

Hobariaren zenbateko honakoa izango da:

- Aurrekontuaren % 2,25koa, 30.050,61 euro baino gutxiagoko aurrekontuentzat.
- Aurrekontuaren % 2,70, 30.050,61 euro baino gehiagoko aurrekontuentzat.

Kudeaketa eta izapidetza

1. Hobaria jasotzeko, beharrezkoa izango da egiaztatzea eskatzaileak eta eraikinak eranskin honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela.

2. Eskariak aurkezteko epea bukatuko da birgaitze obrak bukatu baino lehen

3. Eskariarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Alkateari zuzendutako eskabidea, bertan bere nortasun datuak, eraikinaren kokalekua, obra mota, aurrekontua, obra gauzatzeko epea eta eskatzen duen dirulaguntza adierazten direla.
- Jabetzaren eskritura edo horren kopia kautotua, eta zergazorrik ez duela aitortzea, horrek obrak egitea eta dirulaguntza jasotzea galaraziko lukeelako.
- Obraren aurrekontua, obra egin behar duen kontratistak edo industrialak egina. Fakultatibo batek esku hartzea derrigorrezkoa bada, proiektu teknikoa aurkeztu beharko da.
- Jabearen baimena eta birgaitzeko etxebizitza edo etxebizitzak edozein tituluren bidez okupatzen dutenena, horiek eta diru-laguntza eskatzen dutenak pertsona desberdinak direnean.
- Udal honetako eta Arabako Foru Aldundiko bete behar fiskalak, kanonak eta kuotak ordaindu dituela adierazten duen ziurtagiria.
- Arabarriko idazki edo ziurtagiria birgaitze obra entitate horrek kudeatzen dituenen laguntzen artean dagoela azalduz.



4. daleko zerbitzu juridiko, ekonomiko eta teknikoek egingo dute obraren egokitasunari, balorazioari eta ordenantza honetan ezartzen dena betetzeari buruzko txostena, eta udalbatzaren osoko bilkurak erabakiko du.

5. Diru-laguntza birgaitze lanak amaitu ondoren jasoko a, fakultatiboak edo lana egin duen pertsonak izenpetutako obra giaztagiria aurkeztu ondoren, edo obra ordaindu dela frogatzeko giaztagiria eta faktura aurkeztuta, udal teknikariaren proiekturik edo baloraziorik behar ez denean. Edonola ere, udal teknikariak hirigintzako legeriarekin bat datorren eta lizentziaren baldintza guztiak betetzen dituen adieraziko du txosten batean.

Eraikuntza, instalazio eta Obren zerga arautzen duen Ordenantza, zeinen zati dira eranskin honetan ageri diren tarifa eta hobariak, 2006ko abernduaren 27an onartu zen behin betiko.

ALKATEA

IDAZKARIA